

IRALEN IZENA EMATEKO EPEA IREKI DA**GIZARTE EKIMENEN PATRONALEK ETA HEZKUNTZA SAILAK BERRIZ ERE KATEGORIA PREKARIZATU ETA FEMINIZATUENAK IRALETIK KANPO UTZI DITUZTE.**

Hezkuntza Sailak 2022-2023 ikasturterako irakastordu barneko zein kanpoko ikastaroen deialdia argitaratu (sakatu **hemen**) du. Eskaerak egiteko **azken eguna: maiatzak 16 (barne).**

Hezkuntza sailak berriro ere aukera hau irakasleei bakarrik zabaldu die, ikasleen hezkuntza prozesuan parte diren beste hainbat kolektibo kanpoan utziz Kristau eskolak eta AICE-IZEA lan hitzarmenean horren konpromisoa hartu arren.(0-3 hezitzaileak, hezkuntza laguntzako espezialistak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak).

Alfabetatzeko eta euskalduntzeko eskubiderik gabe geratuko diren kategoriak itunpeko hezkuntza-sistemako feminizatuenak eta prekarioenak dira, eta lan-ordutegitik kanpo egin beharko dute ariketa hori beraien borondatez eta beraien poltsikotik. A ze paradoxa, denboraz zein ekonomikoki zailtasun gehien izan ditzaketen kolektiboak kanpo utzi dituzte.

Ikastetxea, bertan lan egiten duten langile guztiek osatzen dute eta hezkuntzako langile ororen eginkizuna ikastetxeko haurrak heztea da, jangelan, atsedean orduan, irakastorduetan, eskolaz kanpoko ekintzetan zein besoetako haurrak hezten ari garenean. Eta, eginkizun hori guztion ardura den moduan, kasu honetan, ikastetxeak haurrak EAeko bi hizkuntza ofizialetan hezteko gaitasuna izatea ere bai. Beraz, nola uler liteke Kristau Eskolak, AICE-IZEA eta administrazioak langile batzuekiko duten utzikeria? LAB sindikatuak argi du, Euskal Eskola Publiko komunitarioa *euskalduna* izan behar da, langile guztiak proiektuaren parte izango direna, langile guztiek egiten duten lanaren aitortza izango duena eta Euskal Herritar ororen eskubideak errespetatuko dituen.

Beraz, eta LAB sindikatuarentzat eta gure ustez euskal jendartearentzat gaiak duen garrantzia kontuan hartuta, zera exijitzen diogu **EAeko administrazioko Hezkuntza Sailari:** hezkuntzako langile guztiak euskalduntzeko eta alfabetatzeko beharrezko baliabideak jar ditzala.

Badugu

AUKERA

Euskal eskola
publiko komunitarioa
iruten

Info

ZERBITZU PUBLIKOAK - Irakaskuntza – GIZARTE EKIMENA

2022ko apirila

Eta beste aldetik, **Gizarte ekimeneko patronalei** sinatutako lan hitzarmena bete dezatela eta euskalduntzeko konpromisoa behingoz bere gain hartzeko ere exijitzen diegu.

Orain da momentua, has gaitezen Euskal Eskola Publiko Komunitarioa eraikitzen !

ANIMO ETA AURRERA!